

## **Durangoko Udalak 190.000 euroko laguntza eman die herriko negozioei, eskarien %99ari**

**Era berean, ostalariekin bildu da, bigarren 'olatuaren itxieran izandako galeren aurrean laguntza sorta berri bat elkarrekin diseinatzeko.**

Durangoko Udalak 190.000 euro ordaindu ditu txikizkako merkataritzarako eta ostalaritzarako laguntza zuzenetan, bai eta gainontzeko autonomoentzat eta helbide fiskala Durangon duten mikroenpresentzat ere. Udalak, COVID-19ak eragindako konfinamenduak sortutako krisiaren ostean, tokiko negozio txikiei laguntzeko asmoz jarri zituen martxan laguntza hauek. Laguntza horiek Berraktibazio Planaren barruan sartzen dira. Udalak udaberrian onartu zuen plan hori, herriko indar politikoen eta eragileen babesarekin.

Laguntza-lerro horren bidez, Udalak 300 negozio ingururi eman die laguntza, hau da, aurkeztutako eskaeren %99ari: "Badakigu garai zailak direla, batez ere krisiaren ondorioz beren negozioak kolokan ikusi dituztenentzat. Gobernu talde honi ezinbestekoa iruditzen zaio Durangoko ekonomia suspertzea, merkataritza eta

ostalaritza biziak izateak aberastasuna sortzen baitu arlo askotan, eta ez soilik ekonomikoan", azaldu dute Jorge Varela eta Aritz Bravo zinegotziek.

### **Ostalaritzarako laguntza berriak**

Durangoko Udala Gabonetan bildu zen herriko ostalaritza-negozioetako arduradunekin, sektore hori izan baita bigarren olatuan gehien sufritu duena, ostalaritzaren itxieraren ondorioz. Horregatik, gobernu-taldeko kideek iragarri zieten lanean ari direla laguntza zuzenen deialdi berri batean. Diru-laguntza berriaren oinarriak eta epeak aurrerago jakinaraziko dira.